

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

525

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 21ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduaren babesean 2022rako eskatutako laguntzak onartu eta ukatzen dituen. Agindu horren bidez, ardoa, sagardoa eta artisau-erara egindako garagardoa sustatzeko 2022ko laguntza-deialdia egin zen «Basque Wine» programaren bidez.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduaren babesean dirulaguntza jasotzeko hainbat eskabide aurkeztu dira. Agindu horren bidez, ardoa, sagardoa eta artisau-erara egindako garagardoa sustatzeko 2022ko laguntza-deialdia egin zen «Basque Wine» programaren bidez. Aurkeztutako eskabideen zerrenda ebazpen honetako I. eta II. eranskinetan daude, bai eta eskabideekin batera aurkeztutako agiriak ere. Aipaturiko eranskin horietan, eskabide bakoitzari dagokion espediente-zenbakia azaltzen da.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak 2022ko irailaren 21eko Aginduaren bederatzigarren xedapena aplikatuz eratu zenak, egindako ebazpen-proposamena.

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honetako I. eranskineko zerrendan azaltzen diren eskatzaileei minimis araubideko dirulaguntzak ematea, ardoa, sagardoa eta artisau-erara egindako garagardoa sustatzeko «Basque Wine» programaren bidez; dirulaguntza horiek jasota daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduan. Aipatutako eranskinean zehaztuta daude dirulaguntza jaso ditzaketen gastuen zenbatekoak eta emandako laguntzen zenbatekoak, azken horiek zuzeneko laguntza moduan. Dirulaguntza, guztira 98.250,64 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Bigarrena.— Jarduera guztiak 2022ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era egon behar dira.

Hirugarrena.— Onuraduna behartuta dago dirulaguntzaren komunikazioa jaso eta 15 eguneko epean laguntza onartzera. Bestela, dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Laugarrena.— Laguntzaren justifikazioa ebazpen hau jaso eta 15 egun natural balioduneko epean egin beharko da.

Bosgarrena.— Sustatzeko gastua ezarritako epearen barruan gauzatzen ez bada, edo epe horretan gastua egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez badira, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala badagokio, deialdiaren Aginduaren hamabosgarren puntuan aurreikusitako itzultze-prozedurari ekingo zaio.

Seigarrena.— Onuradunak deialdi-aginduaren hamahirugarren ebazpen-zatian jasotako betebeharrak bete beharko ditu.

Zazpigarrena.— Dirulaguntzaren ordainketa enpresek justifikatutako sustapen-ekintzen arabera egingo da, betiere 2022ko irailaren 21eko Aginduan ezarritakoari jarraituz.

Zortzigarrena.— Ebazpen honetako II. eranskinaren zerrendan azaltzen diren eskatzaileei ez ematea minimis araubideko laguntzak ardoa, sagardoa eta artisau-erara egindako garagardoa sustatzeko «Basque Wine» programaren bidezko dirulaguntzak. Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko irailaren 21eko Aginduan jasota daude.

Bederatzigarrena.— Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio-bidea amaitzen, interesdunak gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 121. eta 122. artikuluetan zehaztutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 21a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Jaso dezakeen laguntza (Eurotan)	2022 (Eurotan)
1	00001-BQW2022-CA	Bodegas Ostatu SL	B01127133	17.066,87	8.533,44
2	00003-BQW2022-CA	Bodegas Virgen de Lorea SL	B95628814	3.851,00	1.925,50
3	00004-BQW2022-CA	Viñas Leizaola, SL	B75044925	10.000,00	5.000,00
4	00005-BQW2022-CA	Santa Klara Donosita Brewery, SL	B75173260	175,00	87,50
5	00006-BQW2022-CA	Okendo Txakoliña, SLU	B95299921	30.000,00	15.000,00
6	00008-BQW2022-CA	Viña del Lentisco, SL	B87168290	30.000,00	15.000,00
7	00009-BQW2022-CA	Isastegi Sagardotegia, SL	B20531331	14.791,16	7.395,58
8	00010-BQW2022-CA	Bodegas Heredad de Baroja, SL	B01336155	8.993,90	4.496,95
9	00012-BQW2022-CA	Zapiain, SAT	V20084208	23.175,68	11.587,84
10	00013-BQW2022-CA	Basque Beer House, SL	B75108373	2.067,60	1.033,81
11	00014-BQW2022-CA	Amesguren SL	B20821831	13.500,00	6.750,00
12	00015-BQW2022-CA	Sidras Aburuza SL	B20714473	3.626,54	1.813,27
13	00016-BQW2022-CA	Fermenting, SL	B95846457	1.030,00	515,00
14	00017-BQW2022-CA	Bodegas Itsasmendi Sociedad Limitada	B48972236	1.775,00	887,50
15	00018-BQW2022-CA	Kaia Koop Elk Txikia	F95760997	6.173,10	3.086,55
16	00019-BQW2022-CA	Pascual Berganzo SC	J01193242	2.813,90	1.406,95
17	00020-BQW2022-CA	Bodega Gorka Izagirre Sociedad Limitada	B95234035	8.920,00	4.460,00
18	00021-BQW2022-CA	Bodegas Casa Primicia SA	A01032564	1.450,00	725,00
19	00022-BQW2022-CA	Bodega Bideona SL	B01244136	4.739,00	2.369,50
20	00023-BQW2022-CA	Bidassoa Basque Brewery SL	B75101584	1.642,00	821,00
21	00025-BQW2022-CA	Petritegi Sagardoak 2011 SL	B75043877	9.652,00	4.826,00
22	00026-BQW2022-CA	Bodegas Muro SC	J01250737	1.058,50	529,25

II. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKABIDEAK

	Espediente-zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Ukoaren arrazoia
1	00002-BQW2022-CA	Bodegas Amaren SL	B01455492	Dokumentazioa falta da
2	00011-BQW2022-CA	Ukan Winery SA	A01565266	Ez da onuraduna, ez duelako betetzen 2022ko irailaren 21eko deialdi-aginduen bigarren ebatzia
3	00024-BQW2022-CA	Juan Ramon Lozano SA	A02031664	Ez da onuraduna, ez duelako betetzen 2022ko irailaren 21eko deialdi-aginduen bigarren ebatzia
4	00027-BQW2022-CA	Bodegas Valdelana, Sociedad Limitada	B01303429	Ez da onuraduna, ez duelako betetzen 2022ko irailaren 21eko deialdi-aginduen bigarren ebatzia